

Errealitate ikusezin batera begira

Migratzaile Eskubidedunak sarea ikusezina den errealitate konplexu bati begira jarri da hiru adituren eskutik. *Salerosketaren biktima diren emakumeak: errealitate bat babes eske* hitzaldiak dozenaka lagun elkartu zituen, iragan martxoaren 5ean, Donostiako Loiola Zentruko Arrupe Aretoan. Maria Luisa Del Pozok, Teresa Gironek, eta Maria Teresa Compte Grauk ertz ezberdinetatik begiratu zioten gaur egungo esklabotzaren eredu den errealitate anker bati.

Kristina Berasain Tristan

Nazio Batuen Erakundearen arabera, 13.879 eta 40.000 emakume artean daude sexurako esplotatuta Espainian. Europan, 140.000 dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, Emakunderen azken txostenaren arabera, 2.000 emakumetik gora jarduten dira prostituzioan. Horietatik %10 sexu-esplotaziorako salerosketa sareen biktimak dira. Datuak itzelak badira ere, errealitate ikusezin bat da, eta errealitate konplexu horretaz aritu ziren hiru aditu, luze eta zabal, ikuspuntu ezberdinetatik, hausnarketak tartekatuz, aurreritziak auzitan jarritz, eta, gure buruak interpelatuz, ezen, ikusezinak badira ere, gure hirietan bizi diren emakumeak dira, mundu paralelo batean, bizitzen baino bizirik irauten, azpimundu batean erabat bakartuta.

Maria Luisa Del Pozo Bilboko Oblatetako kidearen eta gizarte langilearen hitzetan, emakumeen salerosketarena oso errealitate konplexua da, eta bertatik bertara ezagutzeak ez du “begirada bakun eta urrun” batetik hitz egiteko aukerarik ematen: “Ez dugu leku inozo batetik hitz egiten; egiten duguna edo egiten ez duguna ez da inozoa. Niri min ematen dit esaten denean errealitate ikusezin bat dela. Ikusezina da, edo, ikusgarria izanda, ikusezin egiten dugu?”. Del Pozok auzitan jarri zuen norbanakoen kontzientzia, konplizeak ere bagarelako.

Bilboko Oblaten Leiho Zabali programaz aritu zen Del Pozo: «Hogei herrialdeetako emakumeak jaso ditugu, 18 eta 35 urte bitartekoak, kultura, etnia eta erlijio ezberdinetakoak, eskolagabeak eta unibertsitate ikasketak dituztenak; azken batean, askotariko errealitateak bizi izan dituzten emakumeak direlako». Programaren bidez, 216 emakume artatu zituzten iaz, horietatik 98 lehenbiziz, eta horietatik 29k euren egoera salatzeko ausardia izan zuten. “Gure protokoloari esker beste 55 uestzko biktima ere identifikatu ditugu”.

Hiru hizlariak bat etorri ziren esatean emakumeen salerosketa sistema kapitalistaren eta patriarkalaren ondorio dela. Del Pozok argi dauka «sistema zital bat» dela: «Emakumeen salerosketak sistema horri erantzuten dio, gizarte matxistari eta patriarkalari, non gizonek baitaukate boterea, emakumeen kalterako, eta badakigu sistema kapitalistak hil egiten duela, bazterketa eragiten duela, hazkunde ekonomikoa giza eskubideen ginetik ezartzen duelako».

«**Negoio itzela**»

Maria Teresa Compte Grau UPSAM Madrilgo Kanpuseko Salamankako Unibertsitate Pontifikaleko Gizarte Doktrinako irakaslea da. Bere esanetan, emakumeak «finantza aktiboak» dira «zapalkuntza, ekoizpena eta errentagarritasuna» ardatz dituen sistema kapitalistan. Politika Zientzia eta Soziologiako doktoreak «gorputzen eskarian» jarri zuen arreta: «Eskari bat dago, gorputzen eskari bat, eta emakumeon gorputza oso errentagarria da, aldi berean sexurako, lanerako eta ugalketarako esplota daitekeelako». Pertsonen salerosketa negozio bat dela ere salatu zuen, “negozio itzel bat”, garai batean ez bezala justifikatu behar ez dena: “Duela 200 urte arraza ezberdineko pertsona bat erostean, arraza hori gurearen azpikoa zela esaten zen, baina gaur egun ez dugu zertan legitimatu behar”.

Merkantzia bilakatzen diren emakumeak, saldu eta erosi egiten direnak, emakume izate hutsagatik esplotatzen dituztenak. Gaur egungo esklabotza da. Compte Grauk Huelvan (Espainia) marrubia biltzeko zelaietan ari diren emakumeen egoera jarri zuen adibide gisa: «Goizean lanerako esplotatzen dituzte, eta gauean sexurako». Azpimundu horretan dauden errealitate paraleloak ankerrak dira: «Batzuetan, goizetan lanerako esplotatzen dituzten gizonak dira gero, gauean, sexualki emakumeak esplotatzen dituztenak. Delituak delitura darama, eta miseriak miseriara».

Eredu hori aldatu ezean, nekez amaituko da emakumeen salerosketa. Teresa Giron Ödos proiektuko kidea eta abokatuaren arabera, emakumeen salerosketa immigrazioari lotutako arazoa da: «Biktima guztiek hiru ezaugarri dituzte: pobrezian bizi dira, paperik gabe eta bakartuta». Migrazioaren zeharkaldietan emakumeen eskubideak etengabe urratzen direla ere salatu zuen: «Ez da berdinean zeharkaldia gizonak edo emakumeek egitea. Jatorrian eta helmugan ez ezik, bidean zehar ere urratzen dira euren eskubideak. Marokoko basoetan, patera hartzeko zain, ezkutatuta egoten diren hilabeteak dira okerrenak». Europara iristeko bidean indarkeria mota askoren biktima direla aipatu zuen, «oso egoera zaurgarrian» daudelako: «Emozionalki eta fisikoki akituta, dokumentaziorik gabe, eta ez dugu ahaztu behar bizimodu latzetatik ihesi doazela, behartutako ezkontzetatik edo mutilazio genitaletik ihesi. Batzuetan, hemen aurkitzen dutena jaioterrian zutena baino makurragoa da».

Gironek Ödos proiektuaren berri eman zuen. Montillan, Cordoban, etxe bat daukate hegoaldeko mugara iristen diren emakumeak eta haurrak artatzeko: “Jada 174 pertsona jaso ditugu etxean, 86 emakume, 56 neskatok eta 35 mutiko. Neskatok gehiago dira, amek ablaziotik babestu nahi dituztelako alabak. Guk asiloa eskatzeko aukera helarazten diegu, nazioarteko babesa jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztelako». Haurren kolektiboa “oso zaurgarria” dela adierazi zuen: “Europaren begietara existitzen ez diren haurrak dira, gure sistematik at daudenak, dokumentaziorik eta identitaterik gabe, eta identitaterik ez baduzu, ez zara”. Gironek galdera deseroso bat plazaratu zuen: “Nola da posible gure mugetatik ehunka haur oharkabeen pasatzea?”. Galdera gehiago ere luzatu zituen: “Saharaz hegoaldeko datozen pertsonak benetan pertsonak direla pentsatzen al dugu? Gu garen bezalakoak direla pentsatzen al dugu?”. Migrazio politikak ere kritikatu zituen: “Pertsona horiek etortzen jarraituko dute, ez datozelako soilik pobreziatik ihesean, euren eskubide

oinarrizkoenak urratzen direlako etortzen dira, eta ibilaldi ankerrak egin ostean, hemen ere euren eskubideak urratzen ditugu”.

Salatzeko zailtasunak

Salerosketaren sareen esku dauden emakumeek proxenetak salatzeko dituzten zailtasunez ere mintzatu ziren adituak, batzuetan dauden egoeraz ere ez direlako jabetzen. «Bakoitzak istorio bat dauka, eta horren arabera kokatzen da bizi duenaren aurrean. Badira emakume batzuk bizi duten egoera izugarria izanda ere, ez dutenak egoera hori delitu gisa identifikatzen, eta denak dira biktimak, salatu edo ez». Giron bat dator Del Pozorekin: «Aintzat hartu behar da batzuetan salerosketaren erantzuleak mehatxatuta daudela, edo euren senideak daudela mehatxatuta».

Compte Grauk antzeko iritzia dauka: “Biktimek, batzuetan, ez dute euren burua biktimatzat ikusten, izan euren esperientzia pertsonalagatik edo erasotzailearekin duten harremanagatik, sarritan ez baitute pertsona hori erasotzailatzat jotzen. Bere osotasunean hautsitako pertsonak dira, eta eragindako traumak betirako iraun dezake”.

Legediak alde horretatik dituen hutsuneak salatu zituzten. Hiru hizlariak iritzi diote legea zaharkituta dagoela, eta ez dituela emakumeak babesten. Gironen esanetan, ez da onargarria biktimak salaketa jarri behar izatea biktimatzat aintzat hartua izateko: «Euren eskubideak urratzen diren momentutik babestu behar dira; erantzukizuna ezin dugu jarri emakumeengan». Compte Grauk ere uste du estatuak emakume horien eskubideak bermatu behar dituela, salaketa jarri edo ez: «Lehentasuna da sare horiek bilatzea eta desegitea, eta erantzuleak zigortzea».

Legea, zaharkituta

Del Pozok adierazi zuen lege integral bat egiteko abagunea dela: «Giza eskubideetatik abiatu behar den lege bat, genero ikuspegia aintzat hartzen duena, kalte ordainak aurreikusten dituen...». Palermoko Protokoloak salerosketaz egiten duen definizioa oso mugatua dela uste du ere. “Protokolo hori berraztertu egin beharko litzateke, emakume batzuk jakinda sartzen direlako sareetan, baina baimen hori ez da sendoa».

Gizakien salerosketa prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko protokoloaren arabera, pertsonen salerosketa da pertsonak biltzea, garraiatzea, lekualdatzea, babestea edo hartzea, horretarako mehatxuaz edo indarrak baliatuz, edo indarkeriaren beste forma batzuez, bahiketaz, iruzurrak, engainuaz, botere-abusuaz edo ahultasun-egoeraz... Jarduera horrek, pertsonak esplotatzearena, irabaziak lortzea du xede, eta onespenik gabe, edo onespena baldintzatuta egonda egiten da.

2010eko Zigor Kodearen erreforma ere aldarrikatu zuten, izan ere, bateko eta besteko legeen arabera, trafikatuak giza trafikoaren ibilbideak aldatzen dituzte: “Beraiek abiadura supersonikoan doaz, eta legegintza eta gizarte eragileak, berriz, motel-motel. Badakite noiz sartu behar duten Paristik. Edo noiz Lisboatik”.

Azpimundu ilun horretatik atera diren emakumeen kemena ere aipatu zuten. Compte Grauren hitzetan,

inportantea da biktimizazio prozesua ezagutzea desbiktimizazioarena egin ahal izateko: “Bat ezagutzeak bestea egitea ekar dezake, alderantzizko bidea egitea, erabat hautsitako pertsona, berriz ere osa dadin, ahaldundu dadin, leheneratu dadin”. Erronka hori “indibiduala eta kolektiboa” dela adierazi zuen adituak.

Gironek hezkuntzan eta prebentzioan jarri zuen arreta, ohartaraziz emakume batzuentzat prostituzioa aurrera egiteko modu bakarra dela: “Badira bidean gizon baten babesa aukeratzen dutenak, jakinda hark bortxatu egingo dituela, baina horrelako beste bortxaketa batzuk saihesten dituzte”.

Del Pozok salaketa jartzen ari zen emakume baten testigantza eman zuen, hunkituta: «Une horretan esan zuen bera ez zela inoren esklaboa, beti izan zuela barruan inork kendu ezin zion indarra».